

Zazpi bele

Behin batean emakume alargun batek zazpi seme eta alaba bakarra zituen. Oso txiroak ziren eta goseak bizi ziren. Semeak goseak amorratzen iritsi ziren batean ogi eske hasi zitzaizkion amari "*ama, ogia nahi dut, ogia ama, ogia.....*" eta amak zakar erantzun zien:

- "*Zuek duzue bele itxura! Bele bihurtu beharko zenukete!*".

Hori esatearekin batera semeak "kroak" bele bihurtu ziren.

Amak atsekabe handia hartu zuen eta horren ondorioz egun gutxiren buruan hil egin zen. Alaba oso triste bizi zen ordutik aurrera. Behin batean ipotx batek hau esan zion:

- "*Zure nebek lehengo itxura har dezaten zazpi alkandora josi behar dituzu eta amaitu arte ez hitz erdirik esan, bestela sorginkeriak indarrean jarraituko du*".

Neska lanean hasi zen berehala. Josi eta josi, hitzik egin gabe. Biharamunean neskak erregearekin egin zuen topo. Bata bestearekin gustatu eta aurrerantzean egunero ikusi zuten elkar. Ikusi bai baina, neskak, hitz egin bat ere ez. Albait arinen bukatu nahi zituen alkandorak, hitz egin ahal izateko.

Erregeak berarekin ezkontzea proposatu zion. Erregearen izeba maltzur batek, ordea, etzuen hartuemana begi onez ikusten eta gazte biak banatzeko ahaleginak egin zituen. Azkenerako, eztakit ze gezur kontatu eta neskalaguna urka zezan konbentzitu zuen erregea. Bai, soka lepoaren inguruan jarri eta kitto.

Hil behar zuten egunerako neskak alkandorak amaitzea lortu zuen. Egun horretan bertan ipotxa agertu zitzaion, zazpi bele atzetik zekartzala. Beleek alkandorak jantzi zituztenean gizaki itxura hartu zuten.

Neska hitzegiteko irrikitan zegoen eta erregeari istorio osoa kontatu zionean, neskari barkatu eta izeba urkatzea erabaki zuen. Neska emaztetzat hartu zuen eta zazpi nebak ba...(Zalantzan) ez dakit zer gertatu zen zazpi nebeekin.

